




I 2019ko urria I

Azaro Fundazioa ISWA 2019 hondakin eta ekonomia zirkularrari buruzko mundu mailako biltzarrean egon zen, Bilbon ospatu zena, urriaren 7, 8 eta 9an.

Azaro Fundazioko taldeak biltzar horretan parte hartu zuen bertan bildutako informazioa *ORHI europar proiektura eramateko helburuarekin, bereziki nekazaritzako elikagaien sektorera eta Lea-Artibain sektoreari erantsitako industriara.



Hitzaldiak, besteak beste, Anthony Marhopoulos, Mario Picazo edo Nicola Cerantola adituen eskutik izan ziren, eta honako puntu hauek azpimarratu zituzten:

- Etorkizuneko ekonomia garapenerako landu beharreko lau eremu edo guneak hauek dira: ekonomia zirkularra, berotze globala, itsas-hondakina eta 4.0 industria.

- E-waste deritzonaren (hondakin elektronikoko guztiak) hazkundera areagotu egingo da, egungo gizartearen teknologia kontsumoaren joeragatik.

- Desmuntaia eta remanufaktura ahalezkoak dira, 4.0 industrian hobekuntza lehiakorrerako.

- Hondakinaren digitalizazioa funtsezkoa da balio katea trazatzeko eta, ondoren, inguru horretan negozio aukeraren bat identifikatzeko edo balioa handitzeko.

Azpimarragarriak dira biltzarrean atzerriko jendea egon izana eta enpresen stand-ak, hondakinaren kudeaketaren eta erantsitako zerbitzuen ingurukoak.

**ORHI proiektua Eskualde Garapenerako Europako Funtsak (EGEF) % 65ean kofinantzatuta dago, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren (POCTEFA 2014-2020) bitartez.*